

FUNTZIONAMENDU ARAUAK
Ospitalizazioko Unitatea –ENDOKRINOLOGIA
Dei egin behar baduzu, ERABILI GELAKO TXIRRINA
ARAU OROKORRAK GURE ZERBITZUAN ZAUDEN BITARTEAN

- Ospitaleratutako pazienteak zarenaz, zure osasuna berreskuratzen eta ezarritako arauak eta jarraibideak betetzen lagundu behar duzu, eta **osasun-sistemak eskaintzen dituen** zerbitzuak egoki erabiltzeaz arduratu. Ospitalizazio-unitatetik borondatez irtetektan, eskatzen dizugu **osasun-langileei kontsultatzea eta informatzea**, laguntza- asistentzialaren jarraipena bermatu ahal izateko; halaber, **ospitaletik ez ateratzeko eskatzen dizugu**.
- Eskatu laguntza behar duzun guztietan, eta horretarako gelako txirrina erabili.
- Egunero pijama edo ohe-atorra jasoko duzu. Norberaren garbitasunerako, bainugela bat dago logelan, dutxa eta guzti.
- Geletako komunak pazienteentzat dira. Laguntzaileentzako komunak igogailuak dauden tokian daude.
- Lagundu ospitalean ISILTASUNARI eusten.
- Pazienteentzako segurtasuna dela medio, ospitaleratzeko unitateetan ezin dira sartu landare naturalak edota artifizialak (plastiko, kartoi eta abarrezkoak), lurduinak edo lur gabeak.
- 09:00etatik 13:00etara laguntzaileek unitatetik kanpo irten behar izango dute, baina beharrezkoa izanez gero, paziente bakoitzeko pertsona bat egon daiteke. Debatuta dago unitateko korredoreetan geratzea.
- Norberaren datuen babeserako 2018/3 Lege Organikoaren arabera, ezin dizugu ingresaturik dagoen inori buruzko informaziorik eskaini, zuri dagokizu non dagoen jakitea.
- Ospitaleak ez du zure objektu pertsonalak bere gain hartuko.

MEDIKUAREN BISITA


- Astelehenetik larunbatera, jaiegunetan izan ezik, 10:00etatik 14:00etara, gutxi gorabehera.
- Bisitan, gelan, medikuak pazienteari eta senitartekoei haren egoeraren berri emango die.

SENITARTEKOENTZAKO INFORMAZIOA


- Bisita-baimenean egingo da, pazientearen gelan, pazienteak hala nahi badu.

OTORDUAK


- 09:10ean Gosaria
- 13:15ean Bazkaria
- 17:00etan Askaria
- 20:30ean Afaria

BISITAK

- 14:00etatik 21:00etara, lanegunetan.
- **Gehienez PERTSONA 1** paziente bakoitzeko. Nahi izanez gero, senitarteko bat zurekin 24 orduetan egon daiteke.

BESTE JAKIN BEHARREKO BATZUK


Kerik gabeko erakunde batean zaude. Hemen ezin da tabakorik erre edota zigarro elektronikorik erabili (baita aparkaleku, lorategi eta kaleetan ere).


LAGUNTZA ETA HEZKUNTZA SANITARIOA

Une jakin batean beharrezkoa izango da senitartekoren baten presentzia, alta ondoko zainketak nola egin ikasten laguntzeko.



Ospitaleratzearen egiaztagiria (enpresarako, familiako medikuarentzat edo senitartekoentzat), Harrerako Zerbitzuan jasotzen da, beheko solairuan, sarreran.


TXAGORRITXU OSPITALEKO TELEFONO ZENBAKIA 945-007000

08:00etatik 22:00etara, logelan deiak jaso daitezke, telefono-zenbaki honetara deituta: 945000882.

Kanpora deitzeko, logelatik, telebistako txartelaren bidez ere dei dezakezu.



Telebista-zerbitzua ez da ospitalearen berezko zerbitzua. Erabiltzeko, txip-txartela eta entzungailuak behar dira; atarian duzu tresna horiek lortzeko makina (dena den, zure entzungailuak ere ekar ditzakezu, nahi izanez gero). Txartelak duen diru-kopurua ez da itzuliko, baina ez dauka iraungitze-datarik; hortaz, berriro erabil daitezke. Matxuraren bat gertatu edo zerbait behar izanez gero, deitu 1422 luzapenera edo 636 46 59 37 telefono-zenbakira. Telebista- eta telefono-ekipoak sistema berean integratuta daudenez, ezin dira telebistak deskonektatu, telefono-zerbitzua ere automatikoki deskonektatuko litzateke-eta.


KAFETEGIA Orduetgia: 07:30etik 22:00etara **KAFETEGIA ERDISOTOAN DAGO**

Igogailuetako hall-ean kafe- eta freskagarri-makinak daude.



OSPITALEKO ALTA: Ahal dela, bezperan emango zaizu horren berri. Komenigarria da alta egunean senitartekoren batekin egotea.

Altaren egunean komenigarria da gela uztea txostena jaso ostean, behar duten pazienteentzat ohea prestatzeko.


ERLIJIO ZERBITZU KATOLIKOA:

Harremanetarako telefono-zenbakia: **618 75 14 15**.